

Euskaldungoa

Euskaldunon Egunkaria, 1993-02-02: 2.

Gizakia talde edo kolektibo ezberdinetan kokatua ikusten da, eta ikusten dute. Jatorrizko baldintzak dira batzutan markatzen dutenak, eta bestetan gizakia beraren aukerak; biak baterako eta elkarren aurkakoak ere badira. Esate baterako; lehen motako bezala har daiteke jatorrizko familiaren, etniaren, ezin itzulia. Bigarrenekoa, hizkuntzaren jatorria, zeren eta euskaldun familian jaio eta hezi denak egin dezake bere baitan, arrazoi baten eta komenientzi asko tarteko, gero ikasitako hizkuntzaganako sentikizuna. Eta baita etnia eta hizkuntza, biak batera, ukatzekoa ere. Euskal Herrian, gizonak libre senti behar du bere burua jatorriko aukerak onartzeko edo beste batzuk egiteko. Neuk aspaldi egin nuen nirea: Euskaldungoa aspalditik dator erasotua, eta zigortua eta periloski mehartzen datorren zati sentitzen naiz; honek badu abantailik, funtsezko koherentzia, eta aukera ezberdinekoak baditu bereak: estatu barruko koherentzia politikoa eta administratiboa. lehenengoak ez du desegokitze eta borroka besterik garraiatzen; bigarrenak ximplekeriaren axolajabetasuna eta egiazko abantaila administral eta ekonomikoak. Hau dena, zilegi diren ezberdintasun partidistak alde batera utzita. Azken hauen koherentzia politikoak edo koherentzi ezak beste azterketa bat eskatzen du. Oraingoz, euskaldungoaren koherentziaren beharra nahi dut azpimarratu. Eta honek izan dezaken indarra.